

TURUTA ETA SUGEA, TURUTA ETA ZIZAREA, TURUTA ETA XILOFONOA



Herriko festak ziren eta bost anai-arrebak irrikan zeuden urtero festetan **ospatzen** zen kantu-, **txiste**- eta kontakizun-jaialdia ikusteko.

- Oso barregarria izaten da! —esan zuen Enekok.
- Goazen, berandu **gabiltza**! —oihukatu zuen Uxuek.
- Nik ere joan nahi dut! —Iratik.
- A ze gauza zoragarriak **prestatzen** dituzten **udaletxean**! —esan zuen Anek.

Jaialdiaren aurreko asteetan **parte-hartzaileak** oso urduri egoten ziren. Ikusleak pozik egotea eta ondo **pasatzea** zen haien helburua eta, horretarako, ideia originalak **bilatzen** zituzten, dibertigarriak... Gehienetan **txalo** zaparradak **jasotzen** zituzten, herriko jendea esker onekoa **baitzen**.

Anek, Enekok, Iratik, Oierrek eta Uxuek urte hartan ez zuten parte **hartzerik** izan, eskolako lanekin eta eskolaz kanpoko jarduerekin oso lanpetuak ibili zirelako. Baina irrikan zeuden haien lagun handia zen Turuta ikusteko, urte hartan hiru alditan aterako **baitzen** eszenatokira.

- Zergatik hartuko du parte hiru aldiz Turutak?
- Ba, hiru lagunek berarekin parte hartu nahi zutelako eta, lagun handiak dituenetz, ez du inor mindu nahi izan eta denei **baietz** esan die.
- Bai, lagunengatik **batzuetan** horrelakoak egin behar izaten dira —esan zien Enekok.
- Asko nekatuko da! —esan zuen Uxuek.
- Xxxxxxx! Ikuskizuna hastera doa!

Lehendabizi, eskutik helduta, **Turuta** eta **Sugea** atera ziren eszenatokira.

- Arratsalde** on guztioi, eta ongi etorri. Turuta eta biok **bertso** bat **kantatzera** gatoz.
- Honela dio:

Pentsa, indartsuena
den arren **otsoa**,
jaitsiz doa iritsi
arte **itsasora**.
Nahi du **atseden** atsegin
ta **esnatze** mantsoa
ez **pertsona** lotsati
baten **diskurtsoa**
irakatsiz aberats
dela **unibertsoa**

- Izugarri gustatu zait! Gora gure **bertsolariak**!!! —oihukatu zuen Oierrek.

Pixka bat geroago, beste partaide **batzuen** ostean, **Turuta** berriz ere eszenatokira igo zen, oraingoan **Zizareak** lagunduta.

- Arratsalde** on! Zizarea eta biok ipuin ero bat **kantatzera** gatoz. Zuen gustukoa izatea espero dugu.

- Honela dio:
Olatz eta **Itziar** lagunak ziren. **Bederatzi** urte zeuzkaten eta **abesbatzan** elkarrekin abesten zuten.
Zuhaitzez eta **putzuz** inguratutako leku batean **pasatzen** zituzten udako goizak, eta gelditu gabe **hitz** egiten zuten.
Egun batean, **hitz** arraro **batzuk entzun** zituzten; albo batera begiratu, eta zerbaiten **itzala** ikusi zuten.
-Han zerbait dago! Goazen!
Kobazulo baten sarrera zen, eta barrura joatea erabaki zuten. Kobazuloaren hasieran **eltze** handi bat eta **edalontzi** pila ikusi zituzten.
-Norbait bizi da hemen.
Barnera sartu ahala, **hitzak** geroz eta altuago **entzuten** ziren. Azkenean, gorputz **beltz** eta **atzamar** lodi **batzuk** ikusi zituzten:
-**Hartza**!!!!
Atzerako bidea egin zuten ziztu bizian. Kobazuloa **beltz-beltza** zegoen eta ez zuten ia ezer ikusten. **Entzierro** bat zirudien: **Itziar** eta **Olatz hartza**ren aurrean korrika, eta **hartza** haien **atzetik**, **eltzean sartzeko** jaki ederra **baitziren**.
-Basora joan beharrean, hurrengoan **hondartzara** joango gara, **Olatz**!!!

- Txalo** zaparrada!!! Merezi duzue!
- Oso barregarria izan da istorioa!

Jaialdiari amaiera emateko, eszenatokian **Turuta** eta **Xilofonoa** agertu ziren. Bi lagunek haien bi soinuak elkarturik zeuzkaten **hitzak** jarraian esatea erabaki zuten, ahalik eta denborarik laburrenean eta keinu barregarriak eginez.

- Kaixo eta ongi etorri! Turutak eta biok prestaturikoa zuen gustukoa izatea espero dugu. Hasiko gara: **txabola**, **txahala**, **txaketa**, **txakurra**, **txalaparta**, **txalekoa**, **txaloea**, **txalupa**, **txamarra**, **txanda**, **txangoa**, **txanoa**, **txanpiñoia**, **txarra**, **txapela**, **txerria**, **txertoa**, **txikia**, **txilibitua**, **txistua**, **tximinia**, **tximinoa**, **txindatak**, **txingorra**, **txintxoa**, **txirikorda**, **txirrista**, **txokolatea**, **txokoa**, **txotxongiloa**, **txorakeria**, **txoria**, **txorimaloa**, **txoropitoa**, **txukuna**, **txuleta**, **txunditua**, **txupatu**, **txupetea**, **txurroa**, **txutxu-mutxuka**!

- Txa, txa, txa, txapeldunak**!!! —bost anai-arrebak zutik jarri ziren **txaloka**.

Urte hartan jaialdia arrakasta handikoa izan zen; ikusle guztiei asko gustatu **zitzazkien** saio guztiak eta hurrengo urtean **itzuliko** zirela **hitz** eman zuten.

SUGAEK "**TS-TS-TS**", A ZE SOLOA!
ZIZAREA "**TZ-TZ-TZ**", EZ ZEN MOZOLOA.
XILOFONOA "**TX-TX-TX**", BETI XALO-XALOA...
ZUK HAUTATU NORI JO **TXISTUA** ETA NORI **TXALOA**.



